

Lanbide Heziketan Ekonomia Solidarioa txertatzeko gida

Koaderno teorikoa



Egileak:



Finantzatzaileak:



Aurkibidea

1. Sarrera	3
2. Ekonomia alternatibo eta solidarioak	5
2.1. Nagusi den eredu ekonomikoari kritika	5
2.2. Ekonomia Alternatibo eta Solidarioak	6
2.3. Ekonomia Alternatibo eta Solidarioen printzipioak	7
2.4. Ekonomia Alternatibo eta Solidarioak ziklo ekonomikoan	10
2.5. Datu batzuk	12
3. Hitzen glosarioa	14
4. Bibliografia eta web baliabideak	17

Lanbide Heziketan Ekonomia Solidarioa txertatzeko gida. Koaderno teorikoa

Egileak: **Alboan**, REAS Euskadi, Egibide, Somorrostro, Peñasal, FYA El Salvador.

Data: Abendua 2020.

Diseinu eta maketazioa: Marra, S.L.

Dokumentu hau Creative Commons en lizentzia honekin argitaratzen da:



Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 3.0 Espainia.

Lizentzia osoa: <https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/legalcode.eu>

1. Sarrera

Bizi dugun COVID-19aren pandemia-egoerak indartu egiten du gure gizarte globalean aldaketa sakona beharrezkoa den ustea. Gizateria murgilduta dagoen krisi ekologiko eta sozialaren zeinu argia da, bai eta elkarlanean aritzeko eta beste modu batzuetan guztiona dena zaintzeko premiarena ere. Horretara ekarri gaitu, hein handi batean, ekonomia ulertzeko eta egiteko dugun moduak, gure planetan inoiz gertatu ez den ingurumen- eta gizarte-iraunkortasuneko egoera baten aurrean jarri gaituenak, eta eragin desberdina izan du herrialde eta biztanleengan. Izan ere, COVID-19ak azaleratu eta areagotu egin ditu gure munduan dauden desberdintasun lazgarriak. Pandemiak indartsuago eragiten die herrialde pobretuenei, eta aberatsenak gaitasun sanitario eta ekonomiko handiagoa dute hari aurre egiteko. Egia esan, munduan desberdintasunak pixkanaka hazten ari diren une batean iritsi zaigu. Birusa egoera larriagotzen baino ez da ari.

Gizarte global gisa igaro behar dugun aldaketa sakonak, besteak beste, ekonomia, pentsamendua eta praktikak eraldatzea eskatzen du. Eta hori egin ahal izango dugu, baldin eta, gero eta gehiago, gizarte- eta ingurumen-justiziako balioetan hezitako pertsonak baldin baditugu, planetaren eta gizateriaren etorkizuna posible egiten duten harremanak izateko, ekoizteko eta kontsumitzeko modu berriekin konprometituta daudenak. Bizitza ekonomikoa, soziala eta politikoa antolatzeko modua aldatzen laguntzen duten pertsonak eta kolektiboak, guztion ongizatea erdigunean jarrita.

Eraldaketa ekonomiko eta sozialaren prozesu hori bultzatzeko, hezkuntza funtsezko elementua da. Testuinguru berri horrek hezkuntzaren helburua berriz aztertzea eskatzen du, eta, gure kasuan, gaur egun Herritartasun Globalaren aldeko Hezkuntzaren alde lan egiteak dakarrena. **Alboan** eta REAS Euskadin, testuinguru horri eta gure hezkuntza-proposamenetik bizi ditugun aldaketa sakonei erantzun nahi diegu. Hori dela eta, geure buruari galdetu diogu zer hezkuntzaz ari garen eta zer nolako aldaketaz ari garen. Gure hezkuntza-proposamenak “hezkuntza-prozesuez” hitz egitera behartzen gaitu. Prozesu horietan, beste eragile batzuekin batera, hainbat prozesu egituratu eta berri sortzen lagundu nahi dugu. Gure lanak (apala eta txikia) prozesu formalak, ez-formalak eta informalak barne hartu



nahi ditu. Prozesu indibidualak, taldekoak, kolektiboak eta masiboak. Prozesu horiek beti egiten dira testuinguru historiko-sozial batean eta testuinguru teoriko jakin batean. Azken finean, bizitzarekin eta haren gorabeherekin lotutako hezkuntza-prozesuak. Hori dela eta, gaur egungo egoeran, aldaketa ugari-
ren denbora-espazio honetan, geure buruari galde-
tzea zer hezkuntza-prozesu mota landu nahi ditugun
galdera garrantzitsua da, baina erantzuteko bi bide
ditu.

- a) Gizartean gertatzen ari diren aldaketetara egokitzeko aukera emango diguten hezkuntza-prozesuak.
- b) Parte hartzen dugunengan lortu nahi dugun gizarte-motarrantz eraldatzeko eta aldatzeko gaitasunak sortzea ahalbidetzen duten hezkuntza-prozesuak.

Erantzuteko lehen bidea ez da **Alboan** eta REAS Euskadiren aukera. Bizi garen munduarekin “ez gara konformatzen”. Ez dugu moldatu nahi, eta ez dugu lasaitasunez bizi nahi egokitzen hori, edo beste batzuek bultzatzen duten istorio baten objektu pasibo gisa. Bigarren aukerak, aldiz, Oscar Jarak berrikuntza urratzailea deitzen dion horretara garamatza. Protagonista aktibo, historiaren eraikitzaile eta subjektu eraldatzaile diren pertsona askoren laguntzaile eta lagunduak gara. Konformatzen ez garen pertsonak, eta badakigunak gure hezkuntza-ekintzak sako-
neko hondoa daukala harago.

Ehunka pertsona, erakunde eta sareren bidetik jarraitu nahi dugu, egungo ereduaz bestelako balioetan oinarritutako ekonomia eraikitzearen alde egiten ari baikara. Ekonomia horretan, pertsonen ongizatea nagusituko da merkatuaren gainetik, lan-
kidetza lehiakortasunaren gainetik, eta elkartasuna eta guztion ongizatea muturreko indibidualismoa-
ren gainetik.

Horregatik, material honek hurbilketa teoriko txiki bat eskaini nahi die irakasleei, ekonomia egiteko beste modu batzuk ezagutzeko; izan ere, “Ekonomia eraldatzaileak” deritzogun horren azpian garatzen ari dira dagoeneko toki askotan. Proposamen horiek, era batera edo bestera, ekoizpen-, merkatu-
ratze-, finantzaketa- eta kontsumo-moduak sortzen saiatzen dira, pertsonetikiko konpromisoa, tokiko in-
gurunearen eta ingurune globalaren garapen iraun-
korra eta guztion ongizatea lortzera bideratuta. Zehazki, material honek “ekonomia alternatibo eta solidarioen” proposamenean zentratuago dagoen begirada eskaintzen du. Beraz, zure eskolak beste parametro batzuetatik bideratzeko eta ñabardura berriak gehitzeko balioko dizu, ikasleei ekonomia ulertzeko eta egiteko egungo modua kritikoki zalan-
tzan jartzen eta gizarte- eta ingurumen-justiziako irizpideekin funtzionatzen duten proposamen alter-
natibo batzuk ezagutzen laguntzeko.

Material honek elementu teoriko-kontzeptualak eskaintzen dizkie irakasleei, ikasleengan egungo pentsatzeko eta ekonomia egiteko moduari buruz-
ko begirada kritikoa sustatzeko. Koaderno hau bes-
te material didaktiko batekin osatzen da. Koaderno horrek ikasleekin dokumentu honetan jasotako kontzeptuak eta ideiak lantzeko jarduerak propo-
satzen ditu.


Alboan eta REAS Euskadin, pentsamendu kritikoa eta ekonomiarekin dugun harremana eraldatzen duten jarrerak sustatzen dituen hezkuntzaren alde lan egiten jarraitzera gonbidatzen zaitugu, gure in-
gurunearekin eta maila globalean arduratsuagoak eta iraunkorragoak diren ekoizpen eta kontsumo ba-
terantz aurrera egiteko. Era berean, gure inguruan eratzen ari diren ekonomia alternatiboko jardunbi-
deekin bat egitera animatzen zaitugu. Praktika ho-
riek indar handiagoa hartzen ari dira egunez egun, eta gure eguneroko errealitatera hurbiltzen ari dira gizarte gisa gidatu nahi gaituzten gizarte- eta inguru-
men-justiziaren balioak.

2. Ekonomia alternatibo eta solidarioak

2.1. Nagusi den eredu ekonomikoari kritika

Nagusi den eredu ekonomikoa gizakiaren funtsezko bi alderdiri bizkar emanda bizi izan da historikoki: naturarekiko eta beste gizaki batzuekiko duen mendekotasuna garatzeko eta bizi ahal izateko. Azken buruan, bizitzeko behar dugun guztia naturatik dator. Argi dago gizakia naturaren mende dagoela bere garapenerako. Gainera, izaki kalteberak eta interdependenteak gara, eta beste pertsona batzuen zaintza behar dugu garatu ahal izateko, gainerako pertsonak bizitzeko une desberdinetan behar gaituzten bezala.

Eredu ekonomiko kapitalistak ikusezin bihurtu ditu bi gai horiek, eta, horrenbestez, tirabira historiko ugari sortu ditu. Tentsio horiek, denborarekin, orain ingurumen- eta zaintza-krisi handi gisa ikusten dugu, eta sufrimendu handia eragiten ari zaie pertsona askori planeta osoan. Hori bereziki egia da emakumeen kasuan, historikoki zaintza-lanez arduratu baitira, eta egungo sistemak zeregin horiek gutxietsi eta ikusezin bihurtu ditu. Hala ere, ekonomia feministaren begiradak ulertarazi digu zaintza-lan "ikusezin" horiek gabe ekonomia produktiboak ezin lukeela funtzionatu.



Eredu ekonomiko hori muturreko lehiakortasunak, indibidualismoak eta erabaki ekonomikoak hartzeak gidatutako balio-sistema baten eskutik joan da, soilik irabazia maximizatuz, beste edozein gogoeta etikorik gabe. Horrek guztiak balio ez digun garapen-eredu bat eratu du, ez baitu bermatzen planetako pertsona guztien bizi-beharrak asetzea, eta aberas-

tasuna eta boterea gero eta gehiago biltzen baitira pertsona gutxi batzuen eskuetan. Gainera, hazkunde ekonomiko mugagabearen falaziaren pean, naturaren baliabideak erauztea eta modu jasanezinean erabiltzea sustatu du, eta horrek gizateriaren historian aurrekaririk ez duen ingurumen-krisi batera eraman gaitu.

Esparru horretan, gure inguruko erakunde eta pertsona askok eta askok planteatzen dute norabidea aldatzeko eta ekonomia pentsatzeko, egiteko eta antolatzeko beste modu batzuk bilatzeko premia larria. Pertsonak eta haien bizi-beharrak eta guztien ongizatea erdigunean jarriko dituen sistema ekonomiko bat, naturak ezartzen dizkigun mugen barruan jardungo duena.

2.2. Ekonomia Alternatibo eta Solidarioak

Mendebaldeko munduko ekonomia alternatibo eta solidarioaren sustraiak XIX. mendeko korrante ideologikoetan daude, hala sozial-kristauan nola langileklasearen autoantolaketako tradizio sozialista eta anarkistan, eta, horren ondorioz, erakunde ekonomiko berriak sortu ziren, hala nola kooperatibak, langile-elkarteak eta aseguruak, aurrezkien eta kredituen mutualitateak. Haien helburua zen merkatuak eta Estatuak asetzen ez zituzten biztanleriaren zati baten gabeziei eta beharrei erantzutea. Gainera, izaera soziokultural eta politiko nabarmena zuten erakundeak ziren, nortasun eta misio komuna zuen talde bateko kide izatea bultzatzen zutenak, unean uneko kapitalismoarekin haustea bilatuz¹.

Kooperatibak izan dira, historikoki, horren guztiaren erakusgarri nagusiak, eta ekonomia soziala deritzon sektoreari eman diote sarrera, honako ezaugarri hauek dituen sektore ekonomikoa: borondatezko atxikipena, erakundearen kontrol demokratikoa, kideen eta gizartearen interesen arteko uztarketa, erantzunkidetasun- eta subsidiarotasun-irizpideen aplikazioa, beste eragile eta botere publiko eta pribatu batzuekiko autonomia, eta soberakinak kideentzako zerbitzuak garatzeko eta interes orokorrerako erabiltzea.

Ekonomia sozialetik ekonomia solidarioa sortu zen, XX. mendearen azken laurdenean, harreman ekonomikoak printzipio eta praktika alternatiboetatik birpentsatzeko saiakera gisa. Mugimendu horren parte dira ekimen sozialeko eta irabazi asmorik gabeko enpresa-ekimenak, banku etikokoak, bidezko merkataritzakoak, tokiko produktuen kontsumoaren sustapenekoak, elikagaien subiranotasunekoak eta ekonomia komunitarioko esperientziakoak, hala nola truke sareak, denbora-bankuak, txanpon soziala eta abar.

Oraindik orain beste korrante batzuk sortu dira, hala nola ondasun komunaren ekonomia, enpresaren ebaluazio- eta kudeaketa-matrizea erabiltzen duena, elkartasunarekin, justizia sozialarekin, parte-hartzearekin eta ingurumen-iraunkortasunarekin lotutako dimentsioak barne hartzen dituen, edo balantze hirukoitzeko enpresak, jarduera ekonomikoa ulertzeko modu berri bat duen enpresa-eredu bat defendatzen dutenak: balantze ekonomikoa, ekologikoa eta soziala dagoela uste duena.

Gainera, genero- eta ingurumen-ekitateari buruzko gaiak lantzen dituzten korranteak daude. Lehenengoari dagokionez, ekonomia feministak bizitzaren zaintza eta iraunkortasuna jarduera ekonomikoaren erdigunean jartzen ditu. Horrek esan nahi du argitara atera behar direla bizitzari eusten dioten eta sistema heteropatriarkalak ezkututzen dituen emakumeei (etxeko lanak eta zaintza-lanak) eta feminitateari lotutako lan ikusezinak. Ekonomia feministak helburuak enpresa-onuratik bizitzaren zaintzara aldatzera garamatza. Bestalde, ekonomia ekologikoari esker uler daiteke bizi dugun krisi sistemikoak jatorri fisikoa ere baduela: baliabide naturalen eskasia eta ingurumenaren narriadura gero eta handiagoa. Argi dago sistema ekonomikoak ezin duela orain arte bezala funtzionatzen jarraitu, sistema naturaletik kanpo eta gaur egungo ingurumen-arazoak larriagotuz: materialen, lurraren eta uraren eskasia, klima-aldaketa, biodibertsitatearen galera eta abar. Ekonomia ekologikoak ekonomiaren azterketa aberastea ahalbidetzen du beste diziplina batzuek (biologia, fisika, kimika, geologia eta abar) emandako ezagutzarekin.

Beraz, Mendigurenek, Etxezarretak eta Guridik (2009) jasotzen duten bezala, ekonomia solidarioa "harreman ekonomikoak parametro ezberdinetatik birpentsatzeko saiakera da. Kapitalaren logikaren, esfera publiko eta pribatuen gero eta merkantilizazio handiagoaren eta ahalik eta etekin handiena bilatzearen aurrean, Ekonomia Solidarioaren helburua da ekoizpen-, banaketa-, kontsumo- eta finantzaketa-harremanak eraikitzea, justizian, lankidetzan, elkarrekikotasunean eta elkarrekiko laguntzan oinarrituta. Kapitalaren eta kapital-metaketaaren aurrean, Ekonomia Solidarioak pertsonak eta haien lana sistema ekonomikoaren erdigunean jartzen ditu, eta merkatuei zeregin instrumentala ematen die beti pertsona guztien ongizatearen eta planeta-ko bizitzaren ugalketaren zerbitzura"².

1 Honetatik egokitua: Yolanda Jubeto, Luis Guridi eta Maite Fernández Villa (2014). *Diálogos sobre la Economía Social y Solidaria en Ecuador*. UPV/EHU.

2 Pérez de Mendiguren, J. C., Etxezarreta, E., Guridi, L. (2009). "Economía Social, Empresa Social y Economía Solidaria: diferentes conceptos para un mismo debate". *Papeles de Economía Solidaria 01*, REAS Euskadi, Bilbo.

Ekonomia Alternatibo eta Solidarioen eta ekonomia kapitalistaren arteko desberdintasunak, laburbilduz, nabarmenak dira. Eredu kapitalistaren helburua mozkinak maximizatzea da, pertsonak bitarteko gisa erabiliz; Ekonomia Alternatibo eta Solidarioen esparruan, berriz, alderantzizkoa da hori, pertsonen

ongizatea naturarekin harmonian (bizitzaren iraunkortasuna) eta merkatua bitarteko gisa erabiliz. Ekonomia horien helburua da gizakiaren garapen pertsonalerako, sozialerako eta ingurumenerako oinarri materialak modu iraunkorrean hornitzea.

	Ekonomia Kapitalista	Ekonomia Alternatibo eta Solidarioa
Helburua	Mozkinak maximizatu	Bizitzaren iraunkortasuna
Bitartekoak	Giza Baliabideak	Baliabide ekonomikoak

Ekonomia alternatibo eta solidarioez ari gara plurrean, horrek aukera ematen baitigu Hegoalde Globaleko (Latinoamerika, Afrika, Asia) herri eta kulturek garapenari eta ekonomiari buruz dituzten hainbat ikuspegi ere kontuan hartzeko. Paradigma ekonomiko nagusiak ikusezin bihurtu eta mespretxatu ditu ongizatea ulertzeko modu alternatibo horiek, hala nola, ondo bizitzea edo bizitza ona, eta ekonomia hori lortzeko bide bat izateko modua. Aspaldiko mundu-ikuskera horiek lankidetzat nagusitu dute lehiaketaren aurrean, eta jakinduria handia garatu dute bizitzeko eta ekonomia egiteko modu kooperatibo eta solidarioetan. Askotan dira Hegoalde Globaleko herrietan sortu diren nekazarien eta indigenen gizarte-mugimenduak, giza eta natura-bizitzaren iraunkortasuna erdigunean jartzen duten eta gizarte eta natura banaezinak direla erakusten duten garapen-eredu nagusiaren alternatibak eraiki, ikusarazi eta proposatzeko³.

Illo horretan, garrantzitsua da kontuan hartzea ez dagoela ekonomia alternatibo eta solidarioa egiteko modu bakarra, baizik eta munduan, Hegoalde eta Iparralde globaletan dauden hainbat kultura mota posible daudela. Ekonomia gizatiarrago eta iraunkorrerago baten aldeko apustua egiten dugun erakunde, enpresa eta sareok kultura-aniztasunaren aberastasuna aitortzen dugu, bere forma anitzetan, eta pertsonen ongizatea eta ingurumen-iraunkortasuna irabazi indibidualen gainetik lehenesten dituen ekonomia oinarritzen duten printzipioetan aurkitzen gara eta horietan ezagutzen dugu geure burua.

2.3. Ekonomia Alternatibo eta solidarioen printzipioak

Ekonomia alternatibo eta solidarioen oinarrian dauden balioak gizarte- eta ingurumen-justiziako irizpideekin lotuta daude. Kontuan hartzen dituzte pertsonak, ingurumena eta garapen iraunkorra, lehentasunezko erreferentzia gisa, beste interes batzuen gainetik.

Espanian, Ekonomia Solidarioeko ekimenetako asko REAS (Ekonomia Alternatiboaren eta Solidarioaren Sarea) sarearen parte dira. Sare horrek printzipio-gutun bat proposatzen du, eta erakunde kide guztiek gutun hori sinatzen dute⁴:

Ekitatea: ekitateak printzipio etikoa edo justizia-printzipioa sartzen du berdintasunean. Balio horrek duintasun bereko subjektutzat aitortzen ditu pertsona guztiak, eta mendetasunean oinarritutako harremanen mende ez egoteko eskubidea babesten du, edozein dela ere haien gizarte-egoera, generoa, adina, etnia, jatorria, gaitasuna eta abar. Gizarte bidezkoagoa da pertsona guztiek eskubide eta aukera berdinak dituztela aitortzen duten gizarte, eta kontuan hartzen ditu pertsonen eta taldeen arteko desberdintasunak. Horregatik, pertsona guztien interesak modu ekitatiboan asetzen ditu.

Lana: lana ekonomian eta komunitatean parte hartzeko testuinguru sozial eta instituzional zabal batean pentsatuta dago. Lanaren dimentsio humanoa, soziala, politikoa, ekonomikoa eta kulturala

3 Fuentes González, José Andrés (2016). Alternativas a la economía y al desarrollo desde las epistemologías del Sur y algunas nuevas visiones del mundo. <https://revistas.ucc.edu.co/index.php/co/article/view/1504/1619>

4 <https://www.economiasolidaria.org/carta-de-principios-de-la-economia-solidaria/>

berreskuratzearen garrantzia baieztatzen da, pertsonen gaitasunak garatzea ahalbidetuko duena, ondasunak eta zerbitzuak sortuz, herritarren (gure, gure ingurune hurbilaren eta, oro har, komunitatearen) benetako beharrak asetzeko. Horregatik, lana enplegua edo okupazioa baino zer bait gehiago dela ulertzen da.

Jarduera horiek banaka edo taldean egin ditzakegu, eta ordainduak izan daitezke edo ez (borondatezko lana), eta langilea kontratatuta egon daiteke edo ondasunen edo zerbitzuen ekoizpenaren azken erantzukizuna bere gain har dezake (autoenplegua).

Lan duina sortzearen alde egiten da, bai eta gizartean beharrezkoak diren lan guztiak (produktiboak eta ugalketakoak) modu orekatuan banatzearen alde ere, merkatutik igarotzen ez direnak barne, baina emakumeen eta gizonen bizi-kalitaterako funtsezkoak direnak.

Ingurumen-iraunkortasuna: ekoizpen- eta ekonomia-jarduera oro naturarekin lotuta dago; horregatik, naturarekin dugun aliantza eta haren eskubideak aitortzea da abiapuntua. Naturarekiko harreman ona aberastasun ekonomikoaren iturri bat da, eta osasungarria pertsona guztientzat. Horregatik, ezinbestekoa da ingurumen-iraunkortasuna ekintza guztietan integratzea, ingu-

rumen-inpaktua (aztarna ekologikoa) etengabe ebaluatuz.

Irabazi asmorik eza: ekonomia solidarioak lortu nahi duen eredu ekonomikoaren helburua da pertsonen garapen integral, kolektibo eta indibiduala, eta, bitarteko gisa, ekonomikoki bideragarriak, iraunkorrak eta osoki errentagarriak diren proiektuen kudeaketa eraginkorra, zeinen etekinak berriro inbertitzen eta banatzen baitira. “Irabazi asmorik ez” izate horrek lotura estua du emaitzen balantzeak neurtzeko moduarekin; izan ere, alderdi ekonomikoak ez ezik, giza alderdiak, sozialak, ingurumenekoak, kulturalak eta parte-hartzaileak ere hartzen dituzte kontuan, eta azken emaitza onura integrala da.

Ingurunearekiko konpromisoa: lurraldearen tokiko garapen iraunkorrean eta komunitarioan parte hartzea. Ekonomia solidarioko erakundeak erabat integratuta daude beren jarduerak garatzen dituzten lurraldean eta gizarte-ingurunean, eta horrek sareetan inplikatzeko eta hurbileko gizarte- eta ekonomia-sareko beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzea eskatzen du, eremu geografiko beraren barruan. Lankidetzan hori bide bat da, esperientzia positibo eta solidario zehatzek desberdintasuna, menderatzea eta bazterketa sortzen duten egiturak eraldatzeko prozesuak sor ditzan.



ten. Toki-eremuko konpromiso hori dimentsio zabalagoako artikulazioarekin uztartzen da, soluzio globalagoak bilatzeko, mikroaren eta makroaren, tokikoaren eta globalaren artean etengabe ibiltzeko beharra interpretatuz.

Lankidetzaz: ekonomia solidarioetako erakundeek eta beste erakunde eta organismo publiko eta pribatu batzuen arteko lankidetzaz sustatzea, lehiaren orde. Gizarte-eredu bat kolektiboki eraikitzea da helburua, honako hauetan oinarrituta: tokiko garapen harmonikoa, bidezko merkataritza-harremanak, berdintasuna, konfiantza, erantzunkidetasuna, gardentasuna, errespetua... Ekonomia Solidarioa jardunbide parte-hartzaile eta demokratikotzat hartzen da, eta pertsonen eta erakundeek arteko ikaskuntza eta lan kooperatiboa sustatu nahi ditu, elkarlana, baterako erabakiak hartzea, erantzukizunak eta betebeharrak partekatzea, ahalik eta horizontaltasun handiena bermatzeko eta, aldi berean, bakoitzaren autonomia errespetatzeko.

Ekonomia alternatibo eta solidarioetako erakundeek eta enpresen arteko lankidetzaz toki-, nazio- eta nazioarte-mailan gertatzen da. Haien arteko aliantzak eta sareak eratzea funtsezko estrategia da mugimendu ekonomiko lokal eta global bat eratzeko, sistema ekonomiko nagusiaren alternatiba izateko behar den indarra eta proposamena izango duena. Latinoamerikan, **Alboan** COMPARE (Comunidad de Aprendizaje y Acción para el Desarrollo Alternativo; Ikaskuntza eta Garapen Alternatiborako Ekintza Komunitatea) elkartasun-ekonomiako sarearen parte da. Sareak 11 herrialdeetako 18 erakunde biltzen ditu, testuinguru txirotuetan eta landa-eremuetan eta hirietako gune baztertuetan bazterketa egoeran dauden biztanleei bizitzeko bitarteko duinak bermatuko dizkieten alternatiba ekonomikoak eraikitzearen alde⁵. Sare horrek bere hausnarketa eta proposamena egin du erakundeek garapenaren alde egiten dituzten alternatiben ezaugarriak buruz, eta bertan parte hartzen duten Hegoaldeko herri eta komunitateen ikuspegi desberdinak egituratzen ditu. Ekonomia alternatibo eta solidarioen barruan dauden adierazpenen aniztasun hori erakusteko, COMPARE sarea osatzen duten erakundeek bat egiten duten ezaugarrien adibide zehatza jaso dugu⁶:

5 <http://desarrollo-alternativo.org/te-invitemos-conocer-la-red-comparte/>

6 **Alboan** (2011). El desarrollo alternativo por el que trabajamos. Aprendizajes desde la experiencia. <http://desarrollo-alternativo.org/documentos/Desarrollo%20Alternativo.pdf>

> Bizitzaren defentsan: pertsona eta haren duintasuna dira erdigunea

“Ondo bizitzea” ez da soilik ekonomikoa. Garapen osoa onartzen du, modu integralean, halako moldez non politikoa, soziala, kulturala eta ingurumenekoa bizitza osoagoa ahalbidetzen duten baldintzak eraikitzeak bereizi ezinak diren. Pertsona erdigunean jartzea, funtsean, baztertutako pertsonen alde eta haien lan egiteko aukera besarkatzea da. Era berean, pertsona defendatzeak berarekin dakar haren oinarritzko eskubideak defendatzea, leku komun gisa, eta bertatik eraikitzen gara, beste pertsona batzuekin batera, gure eskubideen eta erantzukizunen subjektu kontziente gisa.

> Tokian tokikoaren zati bat: ikuspegi alternatibo bat eraikitzen dugu tokian tokiko ikuspegitik

Onartzen da ez dagoela eredu bakar bat, jarduteko modu eskusibo bat, eta tokikoa era askotara aurkezten dela, elkarren artean desberdinak diren testuinguru eta historiari erantzunez. Baina desberdintasun multzo horrek izendatzaile komun bat du; tokitik eraikitzearen asmoa dute. Lurraldea da, beraz, pertsonak eta komunitateak beren berezitasunetik garatzeko nahi duten funtsezko testuingurua, eta eremu natural horretatik eraldatu nahi da. Tokian tokiko alternatiba ekonomikoak eraiki nahi dira, baina kontuan hartuta erronka berriek tokikoa eskualdekoarekin, nazionalarekin eta globalarekin lotzen dutela, kanporantz irekiz eta munduari erakutsiz. Tokian tokikoa da prozesu ekonomiko alternatiboak eraikitzearen lurraldea, nahi dugun gizarte-aldaketan laguntzeko, baina ezin ditugu ahaztu testuinguru globalaren dinamikak, tokikoari ere eragiten diotenak. Garrantzitsua da joera globalak eta horiek tokiko dinamiketan duten eragina irakurtzen eta ulertzen jakitea, tokikotik erantzuteko gaitasuna izateko eta nahi ditugun alternatibak eta aldaketa sortzeko.

> Parte hartzeko eta erabakitzearen gaitasuna sortzen du

Pertsonei autonomia, parte hartzeko gaitasuna eta etorkizuneko ikuspegia izaten lagunduko dieten eta gizartearen eraldatzeko proposamenak sortzen lagunduko dieten gaitasunak eraikitzearen moduari begiratzen dio. Elite ekonomikoaren zerbitzura dagoen onura pertsonalean oinarritutako eredu zaharrekin haustea da helburua, espiritu kritikoa, solidarioa, izango duen herritartasun berri bat eraikitzearen. Bere ingurunearen eraldaketa etiko, kultural eta politikoarekin gaitua eta konprometitua.

> **Eraikuntza kolektiboaren aldeko apustua**

Eredu hegemonikoak gehiegi nabarmendu du dimentsio indibiduala, kolektiboaren kaltetan, eta soziala banakoaren zerbitzura dagoen zerbait bezala kudeatu du. Ordena kolektiboa pertsonen ongizaterako funtsezkoa delako ideia berreskuratu behar dugu. Pertsonak elkarrekin aritzea sustatu nahi da, komunitatean lan eginez, bizi diren eta beren indibidualtasuna garatzen duten gizarte-ingurunearen konfiantza sentituz.

> **Aniztasunaren aberastasuna erreskatatzen du: gu baztertzaitetik eta gu barneratzailerara**

Gizarte pluraletan bizi gara, eta askotan nagusitzen diren balio edo elementu kulturalak inposatzen saiatzen gara. Pluraltasun hori geure burua “ezberdin” gisa ikustetik harago doa, baldin eta “beste denaren” eta “beste pertsonaren” balioa baliotsu eta errespetua merezi duen pertsona gisa aitortzea ez badakar. Alde horretatik, beste aukera bat da ekitatea bilatzea, eskubideetan eta betebeharretan parekatuko gaituena, baina berdintasunezko aitortpen- eta errespetu-harremanak ezartzen dituen aniztasunarekiko errespetu sakonetik abiatuta.

> **Baliabide naturalak modu justu eta iraunkorrean erabiltzen ditu: ingurune naturalarekin harmonian bizi den garapena, gizarte- eta ingurumen-onurak sortzen dituen**

Garapen eredu alternatiboak sustatzeko ahalegina egitea, naturarekin harmonian jarduteko eta kontsumismo ez-iraunkorraren aurkako bizimoduak proposatzeko gai diren bizimoduak barne hartuta.

> **Genero-berdintasuna eta emakumeen ahalduntzea sustatzen ditu**

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-harremanak sustatzea erakundeen betebehar etiko bihurtzen da. Era berean, funtsezkoa da alternatiba ekonomikoaren eraikuntzan emakumeen rol protagonista eta aktiboa aitortzea, indartzea eta ahalbidetzea.

> **Bizitza ona lehenesten du pertsona guztientzat: lehentasuna ez da kapitala metatzea, baizik eta “ondo bizitzea” pertsona guztientzat**

COMPARTEn aniztasun handia dagoen arren, hainbat dira beren erakundeak batzen dituzten leku komunak. Garrantzitsuenetako bat da, hain zuzen ere, lehentasuna ez dela kapitala metatzea, pertsona guztientzako bizitza ona baizik. Ildo horretan, eraikitzen dituzten alternatiba ekonomikoak eredu nagusiaren aurkakoak dira. Bai bizitzaren defentsa

denean, bai tokian tokikoa denean, bai gaitasunak sustatzen direnean, bai taldean eraikitzen direnean edo bai baliabide naturalen kudeaketa demokratikoa egiten denean. Guztiak dira apustu eta jarrera hartzeko modu desberdinak, eta esperientzia alternatiboak sortzen dituzte, gizartean, ekonomian eta ingurumenean bidegabekeria larriak eragiten dituen sistema baten ezarpenei aurre egiteko.

2.4. Ekonomia Alternatibo eta Solidarioak ziklo ekonomikoan

Ekonomia Alternatibo eta Solidarioek askotariko esperientzia praktikoak biltzen dituzte, desberdintasun-arazo larriei erantzuna eman nahi dietenak, eta batera ekonomia egiteko beste modu bat osatzen duten ekimenen sarea eratzen joan direnak. Praktika horiek hainbat forma juridiko hartzen dituzte, hala nola elkarteak, gizarte-enpresak, kooperatibak eta abar. Oro har, jarduera ekonomikoa garatzen duten irabazi-asmorik gabeko praktikak dira; hau da, haien helburua ez da onura ekonomikoa lortzea, eta onura hori helburu sozial bat lortzeko bitartekoa da.

Horrela, Ekonomia Alternatibo eta Solidarioak ekoizpen eta kontsumo arduratsuko, finantza etikoetako, bidezko merkataritzako, inbertsio sozialeko... ekimen ugartan daude, ziklo ekonomiko osoan zehar alternatiba ekonomiko bat ahalbidetuz:

Ekoizpena: enpresaren jabetza langileena den formula kooperatiboak hartzen ditu, eta modu demokratikoan, parte-hartzailean eta sozialki arduratsuan kudeatzen da. Formula horrek aberastasunaren banaketa bidezkoagoa eragiten du, eta soberakinaren zati bat gizarteari itzultzen dio. Era berean, ekoizpen arduratsu eta ingurumenaren aldetik iraunkorra den moduez ari gara.

Trukea eta merkaturatzea: harreman bidezkoak, gardenak, errespetuzkoak eta orekatuak bilatzen dira ekoizleen eta merkaturatzen dutenen artean. Herrialde pobretuetako eta herrialde aberastuetako ekoizleen arteko bidezko merkataritzaz ari gara, baina baita harremana herrialde bereko edo inguru geografiko hurbileko ekoizleen eta merkaturatzaileen arteko denean ere.

Kontsumoa: kontsumo arduratsu gisa definitzen da. Pertsona, erakunde, enpresa eta administrazio publikoek kontsumo kooperatiboa, kontsumo ekologikoa, hurbiltasuna eta kontsumo solidarioa bezalako formak hartzen dituzte.

Finantziaketa: finantza etikoen eredua hartzen da kontuan. Jarduera garatzean onura soziala ekonomiaren gainera lehenesten duten erakundeak. Aurrezkitza biltzeko eta gizarte-kreditu bihurtzeko finantza-tresnak erabiltzea, ekonomia alternatibo eta solidarioa erakundeei eta, oro har, hirugarren sektoreko finantza-irtenbideak eskaini ahal izateko.



Ziklo ekonomiko osoa azaltzen duen Oscar Rodríguez COMPARTEko koordinatzailearen bideoa

<http://desarrollo-alternativo.org/red-comparte-video-de-oscar-rodriguez-sobre-procesos-de-ciclo-economico-completo/>



Ekonomia solidarioa ziklo ekonomikoan (Juan Carlos Pérez de Mendiguren)





2.5. Datu batzuk

Ekonomia soziala kokatuta dagoen lurraldeetan duen eragina eta presentzia ezagutzeko, zenbait datu esanguratsu aurkeztuko ditugu. Lehenik eta behin, haren irismenaren berri ematen duten datu orokor batzuk aurkeztuko ditugu, eta, ondoren, haren oinarri diren printzipioen eta balioen berri ematen duten datu batzuk aurkeztuko ditugu.

Datu orokorrak

Datu hauek ekonomia sozialari egiten diote erreferentzia, osorik kontuan hartuta.

Erakunde kopurua: Estatuan, CEPESek (Gizarte Ekonomiako Espainiako Enpresarien Konfederazioak) Ekonomia Sozialeko 43.192 erakunde daudela kalkulatu du. Euskadin, kopuru hori 1.901 erakundekoa da, Euskal Gizarte Ekonomia Sarearen (EGES) arabera. Europan, 2,8 milioi erakunde daude, CEPESek emandako datuen arabera.

Sortutako enpleguak: erakunde horiek sortutako enpleguak 2.184.234 dira Espainian⁷. Euskadin, datu berrienak 2018koak dira: 87.693 enplegu daude⁸, 4.937 establezimendutan banatuta. Kopuru hori Euskadiko enplegu guztien % 9,4 da. Europan 13,6 milioi lanpostu sortu dira, hau da, biztanleria aktiboaren % 6,3.

Fakturazioa eta Balio Erantsi Gordina (BEG): erakundeek fakturazioa BPGaren % 10ekoa da Estatuan. Euskadin, fakturazioa 10.700 milioi eurotik gorakoa izan da 2018an, 3.433 milioi euroko BEGd-arekin, gutxi gorabehera euskal BEGd-aren % 5.

7 La Economía Social en España 2020, CEPES.
<https://docs.google.com/viewerng/viewer?url=https://www.cepes.es/files/publicaciones/120.pdf>

8 Estadística de la Economía Social 2018 y avance 2019, Departamento de Trabajo y Justicia del Gobierno Vasco,
https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/ecosoc_2018/es_ecosoc/ESTADISTICA-DE-LA-ECONOMIA-SOCIAL_2018_Y-AVANCE_2019.pdf

Printzipioak eta balioak

Ekonomia solidarioko enpresek printzipioak betetzen dituzten ebaluatzeko, REAS-Red de Redesek auditoretza sozialerako tresna bat du, erakunde bati aukera ematen diona printzipio horiei dagokienez duen eraginkortasun soziala eta portaera etikoa ebaluatzeko. Autoebaluaziorako tresna horrek enpresei laguntzen die printzipio horiek betetzen eta gizarteari kontuak ematen⁹.

Hona hemen REAS-Red de Redesek egindako 2019ko Gizarte Ikuskaritzatik ateratako datu batzuk. Bertan, Espainiako Estatu osoko Gizarte Ekonomiako eta Ekonomia Solidarioko 530 erakundek hartu zuten parte, eta horien % 76 sare horren parte dira.

Ekitatea: 2019ko Ikuskaritza Soziala erreferentziatzat hartuta, erakundeetan erantzukizuneko karguak betetzen dituzten pertsonen % 60 emakumeak dira. Hori ez dator bat Estatuko Administrazio Orokorrari buruzko datuekin, organo gorenen eta goi-karguen % 42,8 emakumeak baitira. IBEX-35en kasuan, emakumeek enpresa horietako Administrazio Kontseiluetako kontseilaritzen % 24,7 hartzen dute, eta presidentetzen % 2,9. Beste esparru batean, aipatzekoa da Ikuskaritza Sozialean parte hartu zuten erakundeen % 75ek kontziliaziorako legezko baimenak hobetzeko neurriak dituztela.

Lana: 2019ko Ikuskaritza Soziala egin zuten enpresetan, soldata-desberdintasuna oso txikia da, eta ordainsari handienaren eta baxuenaren arteko erlazioa 1,49 da. Bestalde, Oxfam Intermonen arabera, IBEX-35 osatzen duten 35 enpresetatik 22tan, lehen exekutiboaren soldata enpresako batez besteko soldata baino 50 aldiz handiagoa da¹⁰.

Ingurumen-iraunkortasuna: 2019ko Ikuskaritza Sozialeko erakundeen % 47k energia % 100 berriztagarria erabiltzen dute, eta % 37k ingurumenkudeaketako mekanismoren bat dute. Era berean, % 94k kontsumo arduratsuko irizpideak jasotzen dituzte produktu bat erosterakoan.

Lankidetzatza, irabazi asmorik gabe: 2019ko Ikuskaritza Sozialeko erakundeen % 64k finantza etikoak erabiltzen dituzte. Mozkinen banaketari dagokio-

nez, % 65 galerak konpentsatzeko edo erakundean berean inbertsioak egiteko erabiltzen da; beste % 10, berriz, ondasun komunak eraikitzekekimenetan.

Amaitzeko, REAS Euskadiri eta Euskadiko Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sareari buruzko datu batzuk ere gehitu ditugu. Gaur egun (2020), REAS Euskadik 83 erakunde biltzen ditu: 29 elkarte (% 35), 26 kooperatiba (% 31), 24 gizarteratze-enpresa (% 29) eta 4 fundazio (% 5). Lotura ez dago forma juridikoan, Ekonomia Solidarioaren Printzipioen Gutunean jasotako printzipioetan eta balioetan baizik: (1) ekitatea, (2) lana, (3) ingurumen-iraunkortasuna, (4) lankidetzatza, (5) irabazi-asmorik eza eta (6) ingurumenearekiko konpromisoa.

Sektoreka, besteak beste, esku-hartze sozialean, osasunean eta zaintzan, hezkuntzan eta ikerketan, ingurumenean, etxebizitzan eta hirigintzan, agroekologian, energia berriztagarrietan, finantza etikoetan, bidezko merkataritzan, gizarte-aholkularitzan eta komunikazioan, kontsumo arduratsuan, garapenerako lankidetzan eta abarretan 3.100 langile dituzte, 3.800 boluntario inguru, eta energia, finantza, elikadura edo kultura kontsumorako proiektu kooperatiboak lotutako milaka pertsona. Guztira 125 milioi euroko diru-sarrerak dituzte.

9 2019ko Gizarte Ikuskaritza hemen kontsulta daiteke: <https://www.reasred.org/balance-social-2019>

10 Oxfam Intermon (2019), Quien parte y reparte, la huella en la desigualdad de las empresas del IBEX35. <https://cdn2.hubspot.net/hubfs/426027/Oxfam-Web-site/OxfamWeb-Documentos/OxfamWeb-Infornes/quien-parte-y-reparte-informe-ibex-2019.pdf>

3. Hitzzen glosarioa

Ekofeminismoa

Ekofeminismoa pentsamenduaren eta gizarte-mugimenduen askotariko korrante bat da, ekonomia, kultura eta politika hegemonikoak bizitzari eusten dioten oinarri materialen aurka garatu direla salatzen duena, eta ekonomia eta politika berrantolatzeke modu alternatiboak proposatzen dituena, pertsonen eta naturarekiko harreman hautsiak berrosatu ahal izateko.

Informazio gehiago:

- > Yayo Herrero, “El ecofeminismo como herramienta de transformación”, Contexto y acción, 2018ko martxoak 7, sarrera 2020ko irailaren 24an.
<https://ctxt.es/es/20180307/Politica/18195/ecofeminismo-herramienta-transformacion-mujeres.htm>
- > Yayo Herreroren hitzaldia: “El ecofeminismo, una corriente de pensamiento y un movimiento social” (2017).
<https://www.youtube.com/watch?v=BMMtzTA3Ob4>
- > Bideoa: “Ecofeminismo, por Marta Monasterio” (2017).
https://www.youtube.com/watch?v=1UdMQdejr_M
- > Alicia de Blas, Pistas para un modelo sostenible (Madrid: Intered, 2012).
<https://www.intered.org/es/recursos/pistas-para-un-modelo-de-vida-sostenible>
- > Enpresa transnationalei buruzko hiztegi kritikoa, ekofeminismo.
<https://omal.info/spip.php?article4993>

Ekonomia feminista

Pentsamendu heterodoxoaren korrantea, teoria eta errealitate ekonomiko eta sozialen irakurketa kritikoa planteatzen duena, emakumeei eta gizonei esleitutako rolen azterketatik abiatuta.

Informazio gehiago:

- > Revista Ekonomiaz, 91. zenbakia: Economía feminista, enfoques y propuestas. (2017).
<https://www.euskadi.eus/web01-a2reveko/es/k86aEkonomiazWar/ekonomiaz/getArticulosPubl?idPubl=87>

- > Benería, L. (2018) ¿Qué es la economía feminista?, Revista Alternativas Económicas 6 zenbakia.

<https://alternativaseconomicas.coop/articulo/que-es-la-economia-feminista>

- > Carrasco, C. (2011) La economía del cuidado: planteamiento actual y desafíos pendientes. Revista de Economía Crítica 11. zenbakia.

http://www.revistaeconomicacritica.org/sites/default/files/revistas/n11/REC11_9_intervenciones_CristinaCarrasco.pdf

Ekintzailtza soziala

Ekintzailtza soziala, oro har, ekintzailtzaren zatia da, eta ekonomia sozialeko pertsonak eta erakundeak ditu protagonista, ekintzaileen onura ekonomiko pertsonal hutsetik zuzenean harago doazen balioen zerbitzura, gizarte-balio erantsia zentzu zabalean sortzeko gai diren ekimen eta sare partekatuak garatzeko.

Informazio gehiago:

- > Johanna Mair e Ignasi Martí, Social Entrepreneurship research: a source of explanation, prediction and delight, IESE Working Paper 546 (2005).
<https://media.iese.edu/research/pdfs/DI-0546-E.pdf>
- > Concepto de emprendimiento social, CIRIEC.
<http://www.economiasostenible.org/concepto-de-emprendimiento-social/#rse-pestanyas|0>
- > <https://koopfabrika.eus/>

Bizitza ona

Bizitza ona bizitza bete gisa defini daiteke, eta pertsonen barne-harmonia, komunitatearekiko eta komunitateen arteko harmonia soziala eta naturarekiko harmonia barne hartzen ditu. Hau da, ondo bizitzeko, beharrezkoa da gizakia orekan egotea bere buruarekin, beste gizaki batzuekin eta naturarekin.

Informazio gehiago:

- > León Guzmán, M. (2016). “Economía para el Buen Vivir: un enfoque polanyiano”, Boletín Ecos 37. zenbakia, Fuhem Ecosocial.
<https://www.fuhem.es/2016/11/28/economia-para-el-buen-vivir-un-enfoque-polanyiano/>

> **Alboan** (2011), El desarrollo alternativo por el que trabajamos, aprendizajes desde la experiencia.
<https://www.alboan.org/es/multimedia/publicaciones/investigaciones/el-desarrollo-alternativo-por-el-que-trabajamos>

> “Enfoques sobre bienestar y buen vivir” txostena, Fuhem.
https://www.fuhem.es/media/cdv/file/biblioteca/Dossier/Dossier_Enfoques_sobre_bienestar_y_buen_vivir.pdf

> EsF 23. zenbakia txostenak, “El buen vivir como paradigma social alternativo”, Economistas Sin Fronteras.
<https://ecosfron.org/portfolio/dossieres-esf-no-23-el-buen-vivir-como-paradigma-societal-alternativo/>

Canvas soziala

Canvas soziala kudeaketa estrategikoko txantilo bat da, negozio-eredu berriak garatzeko edo dauden negozioak dokumentatzeko. Enpresa baten balio-proposamena, azpiegitura, bezeroak eta finantzak deskribatzen dituzten elementuak dituen grafiko bisual bat da. Enpresei beren jarduerak lerrokatzen laguntzen die, balizko orekak erakusteko. Bertsio sozialak gizarte- eta ingurumen-dimentsioak gehitzen ditu, negozioak kontuan hartu behar dituen inpaktu posibleak txertatze aldera.

Informazio gehiago:

> REAS Aragón, Herramientas de Innovación Social.
<https://emprendes.net/wp-content/uploads/sites/3/2016/04/M01-Canvas-ESS.pdf>

> Escuela de Diseño Social, Canvas social.
<http://www.escueladisenosocial.org/canvas-social/>

> Economistas Sin Fronteras, Canvas social.
<http://ecosfron.org/el-canvas-social/>

Kontsumo arduratsua

Kontsumo arduratsua edo kontzientea produktu bat kontsumitzeko ohiko irizpideetan (prezioa, kalitatea...) beste irizpide batzuk txertatzea da, hala nola produktuak gizartean eta ingurumenean duen eragina eta produktu hori ekoizten duten enpresak.

Informazio gehiago:

> Lodeiro, Toni (2019), “¿Adónde va el consumo consciente?”, El Salto,
<https://www.elsaltodiario.com/consumo/a-donde-va-consumo-consciente>

> economiasolidaria.org, “Navegando por el consumo responsable”,
<https://www.economiasolidaria.org/wp-content/uploads/2020/08/consumo-responsable-en-economia-solidaria-org.pdf>

> “La historia de las cosas” bideoa:
<https://youtu.be/ykfp1WvVqAY>

> “Comprar, tirar, comprar” dokumentala:
<https://youtu.be/uGAGhAZRMvU>

> Zentzuz kontsumitu
<https://consumoresponsable.info/eu/hasiera>



Finantza etikoak

Finantza etikoek bateragarri egiten dute ingurumen-helburuak lortzea errentagarritasun ekonomiko eta finantzarioa lortzearekin. Finantzaketa etikoak etika sartzen du finantzaketa-prozesu osoan. Aurretai-leek, pertsonak edo erakundeek beren aurrezkiak non inbertitzen dituzten jakiteko eskubidea erabiltzen dute, eta, beraz, finantza-erakundeek etikoki gaitzesgarriak diren jarduerak finantzatzeari uzten diote eta gizarte- eta ingurumen-dukia duten proiektuetan soilik inbertitzen dute, eta, aldi berean, tradizionalki baztertuta egon diren kolektiboek kreditua eskuratzea errazten diete.

Informazio gehiago:

- > Principios de las finanzas éticas:
<http://fets.org/es/principios-eticos/>
- > Fundación Finanzas Éticas (2019) “Las finanzas éticas y sostenibles en Europa”,
<https://finanzaseticas.net/2019/12/20/segundo-informe-sobre-las-finanzas-eticas-en-europa/>
- > Fiare Banca Ética:
<https://www.fiarebancaetica.coop/eu>
- > Triodos Bank:
<https://www.triodos.es/>

Merkatu soziala

Merkatu soziala ondasun eta zerbitzuen ekoizpen-, banaketa- eta kontsumo-sare gisa definitzen da, eta irizpide etiko, demokratiko, ekologiko eta solidarioekin funtzionatzen du lurralde jakin batean, ekonomia solidario eta sozialeko enpresa eta entitateek nahiz kontsumitzaile indibidual eta kolektiboek osatua. Helburua da parte-hartzaileek sarean dituzten beharren zati handi bat betetzea eta ekonomia solidarioa ekonomia kapitalistatik deskonektatzea, ahal den neurrian.

Informazio gehiago:

- > <https://www.mercadosocial.net/que-es-mercado-social>
- > Euskadiko Merkatu Sozialaren 2020 Katalogoa:
<https://www.economiasolidaria.org/eu/recursos/reas-euskadi-biblioteca-euskadiko-merkatu-sozialaren-2020-katalogoa/>
- > “Mercado Social, otra economía para una vida mejor” bideoa, REAS Euskadi:
<https://vimeo.com/80540676>



4. Bibliografia eta web baliabideak

Bibliografia

Alboan (2011). El desarrollo alternativo por el que trabajamos. Aprendizajes desde la experiencia.
<http://desarrollo-alternativo.org/documentos/Desarrollo%20Alternativo.pdf>

Fuentes González, José Andrés (2016). Alternativas a la economía y al desarrollo desde las epistemologías del Sur y algunas nuevas visiones del mundo.
<https://revistas.ucc.edu.co/index.php/co/article/view/1504/1619>

Oxfam Intermon (2019), Quien parte y reparte, la huella en la desigualdad de las empresas del IBEX35.
<https://cdn2.hubspot.net/hubfs/426027/Oxfam-Website/OxfamWeb-Documentos/OxfamWeb-Informes/quien-parte-y-reparte-informe-ibex-2019.pdf>

Pérez de Mendiguren, J. C., Etxezarreta, E., Guridi, L. (2009). “Economía Social, Empresa Social y Economía Solidaria: diferentes conceptos para un mismo debate”. Papeles de Economía Solidaria 01, REAS Euskadi, Bilbao.
https://base.socioeco.org/docs/papeles_es_1_reas_euskadi.pdf

Jubeto, Yolanda, Guridi, Luis y Fernández Villa, Maite (2014). Diálogos sobre la Economía Social y Solidaria en Ecuador. UPV/EHU.
http://publicaciones.hegoa.ehu.es/uploads/pdfs/256/Dialogos_sobre_ESS_en_Ecuador.pdf?1488539810

Askunze Elizaga, Carlos, Ruiz Osorio, Pepe y Calero Blanco, Vane (2019): Economía solidaria: economía eraldatu, gure mundua eraldatzeko. Gida didaktikoa. REAS Euskadi, Bilbo.

Askunze, Carlos, Jubeto, Yolanda, Marcó, Luciana y Pérez, Zaloa (2020): Economía solidario baterako hiztegi feminista. REAS Euskadi, Bilbo.



Web baliabideak

COMPARTE Sarea
<http://desarrollo-alternativo.org/te-invitas-conocer-la-red-comparte/>

El ciclo económico completo en la economía solidaria, Red COMPARTÉ.
<https://www.youtube.com/watch?v=r83XN0Ev2yQ&feature=youtu.be>

El portal de la Economía Solidaria.
<https://www.economiasolidaria.org/eu/>

REAS Euskadi.
<http://reaseuskadi.eus/eu/>

Gizarte Ekonomiaren Euskal Behatokia.
<https://oves-geeb.eus>

REAS, Auditoría Social 2019.
<https://www.reasred.org/balance-social-2019>

La Economía Social en España 2020, CEPES.
<https://docs.google.com/viewerng/viewer?url=https://www.cepes.es/files/publicaciones/120.pdf>

Estadística de la Economía Social 2018 y avance 2019, Departamento de Trabajo y Justicia del Gobierno Vasco.
https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/ecosoc_2018/es_ecosoc/ESTADISTICA-DE-LA-ECONOMIA-SOCIAL_2018_Y-AVANCE_2019.pdf